

BURGOSKO PROZESUA

Torturen dossier desagertua, nazioarteak frankismoa epaitzeko frogaren bila

ETako hamasei militanteren kontra 1970eko abenduan Burgosen egin zen gerra kontseiluak mugarrira ipini zuen, jendarteak sinetsi baitzuen bazegoela alternatibarik frankismotik harago. Prozesu hartan, auzipetuek jasandako torturen testigantzak funtsezkoak izan ziren erregimenaren zapalkuntza agerian uzteko. Vatikanora bidaiatu zuten senideek Aita Santuari eskura eman nahi izan zioten tortura horiek jasotzen zituen txostena. Egun desagertuta dago.

 URKO APAOLAZA AVILA



Burgos, 1970eko abendua da. 16 euskaldun iraultzaileak juzgatzeko prozesua dela bide, denak ETakoak dira. Fiskalak 6 igortzen ditu heriotzara: Izko, Uriarte, Onaindia, Larena, Gorostidi eta Dorronsoro. Abenduaren 3an gaude, bezperan bertan Euskadi osoa huelga jeneralean sartu da, Espainiako herri guztiak anai-arreben aldeko ekintzetan sartzen dira. Lantokietan, fabriketan, eskoletan, karriketan... edonondik irteten dira diktaduraren kontrako oihuak. Horrela hasten da Burgoseko gerra kontseilu hartatik iritsi zaigun grabazio ezagunaren sarrera, garai hartan zegoen eguraldi gorriaren lagin esanguratsua.

Epaiketa 1970eko abenduaren 3tik 9ra egin zen, baina fiskala hilabeteak zeramatzan azpilanean. Meliton Manzanas komisario torturatzaileraren hilketaz gain, beste hainbat eraso eta lapurreta egotzen zieten ETako kideei, eta prozesu sumarisimo batean bildu zituzten denak, eskarmetua eman nahian. Errepresio katea 1968an estutu zela esan genezake, guardia zibilek Tolosako Bentaundin Txabi Etxaberrieta hil zutenean. Ondoren etorri ziren Manzanasen hilketak, eta Bilboko Artekalako eta Kantabriako Mogrovejoko sarekadak, ETako buruzagien kontra. Salbuespen egoerek hauspotuta, 1969an bakarrik 1.953 lagun atxilotu zituen poliziak Hego Euskal Herrian; horietako asko torturatuak izan ziren.

Burgosko Prozesuaren harira Aranzadik egunotan Donostian, EHUKo Gipuzkoako Campusean paratutako erakusketara sartzerakoan, audio historikoa entzun dezakegu, Mario Onaindiaren ahots urratuak "Gora Euskadi Askatuta!" oihukatu eta auzipetuek *Eusko Guda-riak* kantatzen dutelarik, koronelaren sablearen aurrean. Borroka antifrankistaren momentu esanguratsuenetako bat izan zen. Baina erakusketan aurrerago eginez, egur konglomeratuzko mahai zabar batean ikus ditzakegun borrak eta aliketek ondo islatzen dute borroka horrek epikotik baino gehiago izan zuela sufrimendutik.

Torturaren inguruan egun kontzientzia gehiago dugun harren, harrigarria da 1970eko gertaeren kontakizuna egiterakoan toki zabalagoa ez izatea. Duela mende erdi, ordea, auzipetuek polizia-etxean jasandako praktikak nabarmendu zituzten defentsako abokatuak, erregimen frankistaren ankerkeria agerian uzteko. Hain zuzen, epaiketa baino aste ba-



ERROMAKO PAPERAK. Lazkaoko beneditarren artxiboan Vatikanora egindako bidaiaren kronika eta gutunak mantentzen dira, ez ordea auzipetuen tortura salaketen orrialdeak.

tzuk lehenago Vatikanora bidaiatu zuten senideek ere, tortura horien berri eman nahi izan zioten Paulo VI.a Aita Santuari dossier baten bidez.

Paulo VI.a Aita Santuak
ez zituen auzipetuen
senideak hartu, baina
dossierreko torturen
salaketa publikoak
balio izan zuen
frankismoa mundu
osoan biluzik uzteko

ERASO EGINEZ DEFENDITU

Autoinkulpazioak torturen bidez lortu zirela salatu zuten senideek. Baina ez zen lehen aldia, noski, poliziak halako metodoak erabiltzen zituela, ezta azkena izango ere –Kriminologiaren Euskal Institutuak 1960 eta 2014 artean 4.113 tortura kasu jaso ditu, Espainiako Poliziak, Guardia Zibilak eta Ertzaintzak eginak–.

1968ko abuztuaren 16an, Manzanas hil eta gutxira, gerraosteko *Bandidajea eta Terrorismoa Erreprimitzeko Legea* berriz promulgatu zuen Francoren gobernuak. Horren ondotik, ETarekin loturiko auziak

Gerra Kontseiluetan epaitzen hasi ziren, lege-militar "siple eta irmo" baten pean, Burgosko auzipetuen defentsako abokatu izan ziren Miguel Castells, Pedro Ibarra eta Francisco Letamendiak urteurrenaren kari plazaratu duten idatzian diotenez: "Erregimenaren aurkako edozein kritika eta oposizio mota kondenatzen zen". Baina kontrara, estrategia garbi baten bidez –"akusatuak justizia-aretoan defendatzen dira eraso eginez"–, epaituek lortu zuten frankismoa bera izatea epaitua, bere zapalkuntza mundu osoaren bistan utziz.

Berriki hil den Gisèle Halimi kazetariak zuzenean jarraitu zuen epaiketa eta *Le procès de Burgos* (Burgoseko prozesua) liburuan argitaratu zuen, maisuki, bertan entzundakoa, tartean auzipetuen torturak: "*Operazio mahaia* deitzen zuten horretan jarri ninduten. Eskuetatik eta hanketatik heldu zidaten, ahoa paperekin itxi, eta akitu arte jo ninduten, batez ere bularretan eta zangoetan", deklaratu zion epaimahaiari Jone Dorronsorok.

Ez zen aurreneko aldia "hausturazko epaiketa" batean halakoak kontatzen zirena. Bi urte lehenago, 1968an, Lazkaoko alkate frankistaren etxeari su ematea egotzita, Donostiako Loiolan epaituriko hainbat akusatu ere saiatu ziren euren testigantza ematen; haien abokatu Castellsek hedabide honi azaldu zion gertaturikoa (*Larrun*, 82 zk.): "Manifestaldi gogorrak izan ziren, eta horietako bat kuartelen barruraino sartu zen. Gerra kontseilu hartan lehenbiziko aldiz torturak salatu ziren. Presoari galdetzen genion berak tortu-



“OPERAZIO MAHAIA”. Donostian, EHU-ren Gipuzkoako campusean ikusgai dagoen erakusketan torturen praktiken eszenatokia irudikatu dute, ‘El Cabra’-ren marrazkien ondoan.

rak salatzeke moduan, epaile militarrek hitza kentzen zion, guk protesta egiten genuen...”.

Geroztik gerra kontseiluak Euskal Herrikan kanpora eraman zituzten. Orduan, zergatik izan zuen garrantzia berezia 1970eko abenduan Burgosen egindakoak? Besteak beste, mobilizazioen eta prentsaren bidez nazioartean lorturiko oihartzunagatik.

VATIKANORA BIDAIA

Donibane Lohitzune, 1970eko udazkena. Auzipetuen senide batzuk Juan Mari Arregi eta Telesforo Monzonekin elkartu dira, Aita Santuarekin egon nahi dutelako. Arregi erbesteturik dago ETako kide bati ihes egiten laguntzeagatik; lehenago egin dago beste bidaiaria bat Erromara, euskal apaizek Derioko seminarioan antolatutako itxialdia zela-eta: “Senideak Vatikanora joan ziren justizia eskatzera, ez errukia, Paulo VI.ak nahi zuen bezala”, dio orduan apaiz eta egun kazetari eta ARGIAko kolaboratzaile denak.

Aste batzuk geroago, azaroaren 10ean, hainbat bitartekariarekin egindako lanari esker –tartean Jose María Díez Alegría jesuita eta Rafael Alberti poeta-, auzipetuen ama-arrebek Vatikanoko Estatu Idazkaritzaren ateraino iristea lortzen dute, Arregik lagunduta. Ez harago. Gutun bat helaraziko diote Aita Santuari, Giovanni Benelli monsinorearen bidez, orduko Estatu Idazkaria: “Eliza kargu egitea nahi dugu. (...) Gure seme-alabak

heriotzara zigortuak izateko arriskuan dira, eta balizko sententzia horrentzako frogak torturapean lorturiko deklarazioetan oinarritzen dira”, dio testu mekanografiatuak.

Horrekin batera, Arregik egindako dossier oso bat ere badute beretzat, Juan Mari Bandres eta Jose Antonio Etxebarrieta abokatuak –azken hau Txabi Etxabarrietaren anaia– igorritako informazioarekin eta auzipetuen sinadura daraman deklarazioekin, jasandako torturak azalduz, lehenagotik Xabier Zumalde *El Cabra*-k egindako torturen marrazki famatuez osatuta.

Paulo VI.ak dokumentazioa jaso bai, baina ez ditu senideak hartuko, dirudienez Espainiako enbaxadak presionatuta. Trukean arrosario batzuk eskaintzen dizkie Erromara joandakoei; hauek, jakina, ez dute oparia onartuko. Justizia, ez errukia.

FRANCOREN ESKU ERE BAI

Arrosarioen ateraldia azkar zabaldu zen nazioarteko hedabideetan, baita senideen bidaiaren motiboak eta torturen salaketak ere, batez ere Italiakoetan: “Epaituak izan behar diren euskal preso guztiak torturatuak izan dira”, zioen *Paese Sera* egunkariak; “Operazio mahaia: torturen bidez lorturiko deklarazioak”, *L’Unità* kazeta komunistak... Vatikanoko prentsa arduradunak Paulo VI.aren postura justifikatu behar izan zuen, esanez Euskal Herriaren “egoera politikoaz” iritzi eske joan zitzaizkiela.

Baina, hala ere, torturak frogatzen zituen paper horiek bide luzeagoa egin zuten. “Paulo VI.ak goizean atea itxi zigun, aldiz, arratsaldean Aita Santu *bel-tzak*, Pedro Arrupe jesuiten nagusiak hartu gintuen –azaldu digu Arregik–. Hitz eman zigun dossierra pertsonalki jarriko zuela Franco diktadorearen eskuetan. Eta badakit Burgosko epaiketa baino egun batzuk lehenago Madrilera joan eta bere promesa bete zuela”.

NON DAGO TXOSTENA?

Torturak azaltzen zituen dokumentu historikoaren lorratza galdu egin da, erbestetik itzultzean Arregik jasandako espetxealdiak badu zerikusirik horrekin. Baliteke, nazioarteko komunitateak frankismoa epaitzeko erabilitako frogak baliotsua, jesuiten Erromako etxe nagusian egotea, baina Arruperen funtsa itxita dago momentuz. Eusko Jaurlaritzaren agiriaren ere ez da ageri nonbait, Leizaola lehendakariak Erroman zuen delegatuak –Angel Ojangurenak– kopia bat jaso zuen arren.

Azkenean, Lazkao beneditarren artxibo oparoan topatu ditugu 1970ean Vatikanora egindako bidaiaren paperak: Aita Santuari idatzitako gutunak, Arregik prentsarako prestaturiko txostenak... baina Burgosekoek jasandako torturen inguruko orrialdeak falta dira. Badago beste dossier bat, *El Cabra*-ren marrazki ezagunekin –urte luzez tortura irudikatzeke erabili izan zirenak, 1976an Zeruko ARGIAk Anparo Arangoaren gorputz ubelduaren argazkiak publikatu zituen arte– eta 1969an atxilotutako hainbaten testigantzekin osatua; aitzitik, oraindik “inkomunikaturik” zeudenak falta dira dio amaierako ohar labur batek.

Nolanahi dela ere, torturen salaketa publikoak balio izan zuen frankismoa mundu osoan biluzik uzteko. Burgosko Prozesuaren harira sorturiko protesten ondorioz, Francoren erregimenak atzera egin zuen lehen aldiz –Opus Deik kontrolaturiko gobernuko “teknokraten” eta militarrek osaturiko “bunkerraren” arteko lehia azalekotik harago–. 1970eko abenduaren 28an sententziaren berri eman zen: bederatzir heriotza zigor eta 519 urteko kartzela auzipetuentzat, fiskalak eskaturikoa baino gehiago. Bi egun geroago, Tomás García Rebull Burgosko kapitain orokorrak kondenak baieztatu zituen, baina hortik ordu gutxitara Ministroen Kontseiluaren eskariz Francok heriotza zigorrak konmutatzea erabaki zuen: “Patriotismo handiz, epaitzen dut”, esan zuen diktadoreak, denek jakin arren epaitua bera izan zela. ●